

Arabako Zalla ibai-izenak nozitu duen itxuragabetze-prozesua

Proceso de deformación del nombre del río alavés Zalla

Processus de déformation du nom du cours d'eau
alavais Zalla

The river name Zalla in Araba has undergone a process
of distortion

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto
Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen burua

Noiz jaso: 2021-01-27

Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 401-443. Bilbo
ISSN 0210-1564

Arabako Zalla ibaiaren izenak etengabeko itxuragabetze-prozesua nozitu du XX. mendean barrena. *Zalla* izena XVI. gizaldiaz geroztik erruz dago izkribu historikoetan, eta ahoz ere horrela iritsi da gaur arte. Hala ere, XX. mendearen hasieran *Zaya* agertu zen, yeismoaren eraginez. Sasoi hartan gertakari hori Arabaz kanpoko bazen ere, idazkera berria pixkanaka hedatu zen agiri administratiboetan. Ondoren *Zayas* sortu zen eta, azkenik, *Zaia* ustezko euskal grafia okerra. Itxuragabetze horien nondik norakoak aztertzen dira lan honetan eta *Zalla* izenaren egokitasuna berresten da.

Gako-hitzak: Zalla ibaia, dokumentazio historikoa, yeismoa, izendapen administratiboa, itxuragabetze toponimikoa.

El nombre del río alavés Zalla ha sufrido durante el siglo XX un progresivo proceso de deformación. El nombre *Zalla* figura profusamente en los textos históricos desde el siglo XVI, y así ha pervivido oralmente hasta la actualidad. Sin embargo, a comienzos del siglo XX apareció la variante *Zaya*, por influencia del yeísmo. A pesar de que entonces era un fenómeno externo a Álava, la nueva grafía fue extendiéndose poco a poco en los documentos administrativos. Después surgió *Zayas* y, finalmente, la errónea grafía supuestamente vasca *Zaia*. En este trabajo se estudian los pormenores de esas deformaciones y se concluye la idoneidad del nombre *Zalla*.

Palabras clave: río Zalla, documentación histórica, yeísmo, denominación administrativa, deformación toponímica.

Le nom du cours d'eau alavais Zalla au connu au cours du XXe siècle un processus progressif de déformation. Le nom *Zalla* figure à de très nombreuses reprises dans les textes historiques depuis le XVIe siècle. Ce nom a survécu ainsi oralement jusqu'à aujourd'hui. Pourtant, au début du XXe siècle, est apparue la variante *Zaya*, sous l'influence du yeïsme. Bien que cela ait été alors un phénomène externe à l'Alava, la nouvelle graphie s'est étendue peu à peu dans les documents administratifs. Puis est apparu *Zayas* et enfin la graphie erronée et supposément basque *Zaia*. Ce travail étudie les détails de ces déformations et tire la conclusion que la graphie qui convient est *Zalla*.

Mots-clés : cours d'eau Zalla, documentation historique, yeïsme, nom administratif, déformation toponymique.

The name of the river Zalla in Araba underwent a continuous process of distortion during the 20th century. The name *Zalla* has been recorded in historical writings for centuries, and it is still used orally to this day. However, *Zaya* was recorded in the early twentieth century under the influence of excessive use of the letter -y. Although that phenomenon was taking place outside Araba at the time, the new spelling gradually made its way into administrative

documents. Later *Zayas* appeared, and finally *Zaia* was incorrectly believed to be the Basque spelling. The details of these distortions are examined in this work, and the appropriateness of the spelling *Zalla* is confirmed.

Keywords: Zalla River, historical documentation, excessive use of the letter Y, administrative designation, toponymic distortion.

1. Atarikoa eta ibaiaren kokapen geografikoa

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak Arabako Zalla ibaiaren izen egokiaz galdetu dio Euskaltzaindiko Onomastika batzordeari. Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean *Zalla* izen arautuarekin ageri da, baita *GeoEuskadi* bisorean ere. Alabaina, forma horrekin bat ez datozen zenbait aldaera (*Zaya*, *Zayas* eta *Zaia*) aspaldian hedatzen eta ugaltzen hasiak direla oharturik, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak irizpena eskatu dio Onomastika batzordeari, *Zalla ibaia* “izen arautu egokia den edo ez ziurtatzeko”.

Azterlan honek erantzun funtsatua eman nahi dio kontsultari. Xede horrekin, berariazko ikerketa egin da. Iturri dokumentalak arakatu dira, zaharretik garaikidera,¹ aztergaiaren bilakaera historikoa zehazteko asmoz. Ibaiaren izenak nozitu dituen itxuragabetzeen nondik norakoak erakusten dira, horiek guztiak arauketan baztertzekoak direla ondorioztatzen da eta, azken buruan, *Zalla* izenaren egokitasuna berresten da.

Zalla laburrenetakoa da Zadorra ibaira isurtzen diren ur-lasterretan. 940 metroko altitudetan sortzen da, eta 28,3 kilometroko ibilbidea du Zadorrarekin bat egiten duen tokiraino (Confederación Hidrográfica del Ebro 2010).

Ibaiaren sorburua, ibilgua eta ahoa zein diren jakiteko, informazio zehatz-mehatza dakar *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (1802), *Zalla* edo *Lendia* sarreran:

Rio de la pr[ovincia] de Álava. Se forma de 4 riachuelos que nacen en distintos parages de las faldas de la sierra de Gorbéa: el principal descende del monte de Ogueta, ramificación de aquella sierra, pasa por junto á la ermita de la Magdalena, y haciendo mover despues los molinos de Ocaranca [sic, *Ocarança* ordez] y Echaguen, cuyos términos baña por o[este] dexándole á la izquierda, llega hasta Murua, donde se une con otro que trae su origen y nace en el

¹ Pedro Uribarrena artxibozainaren lankidetzara oparota izan dut egiteko horretan. Berari zor dizkiot Ezarra, Gereña, Mendotza eta Tresponde kontzejuen artxiboetako datuak, baita Arabako Proibintzia Artxibo Historikoan dauden protokoloetakoak ere.

monte tocornal de este lugar y del de Manurga, corriendo desde aquí por el sitio donde está la ermita de santo Tomás: incorporados los dos, discurren de n[orte] á s[ur], por términos de dicho pueblo de Murua y por los de Larrinoa que baña por e[ste] dexándole a la derecha, Gopegui por o[este] y Ondátegui por e[ste]: poco más adelante de éste se juntan con el que descendiendo de la falda de la mencionada sierra, pasa por el e[ste] de Manurga, dexándole a la derecha. Unidos en esta forma los tres ramos, se ocultan en la dehesa de Ondátegui, entrando por un grande agujero de peña viva que hay en ella, al qual llaman los naturales bocaron de Zaragoza,² y corriendo por debaxo de tierra como quarto y media de legua, vuelve á salir poco ántes de llegar á Apodaca junto al camino real de pos-

² *Bocarón de Zaragoza* lekuaz dihardu Landazurik, izenik eman gabe: “[...] despues de haber corrido algun pequeño terreno, se sepultan, y á la similitud del Guadiana vuelve uno de ellos [...]” (Landazuri 1798). Moldeko letran estreinako aldiz ageri da leku-izen hau 1802ko *Diccionario Geográfico-Histórico de España*n. Izen bera du *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España*n (Madoz 1845-1850). Ondoren, Gorbeiaoren uren aprobetxamenduari buruzko lan batean aipatzen da: “Bocarón de Zarragua” [sic] (Robert; González de Lopidana 1867). Gehiagotan ageri da XX. mendearen hasieran inprimatutako idatzietan: El Bocazón [sic] de Zaragoza (Becerro de Bengoa 1880 [1918]) eta El Bocarón / Bocarrón de Zaragoza (Carreras i Candi circa 1915).

Aldiz, hurrengo idatzietan *Zaracua* da nagusi, *Zaragua* aldaeraren kaltean. Halaber, *bocarón* izen generikoa alboratuta, *bocarrón* gailendu zen: “Bocarrón o torco de Zaracua” (Susaeta 1925). Horrela ere idoro daiteke: “Boquerón de Zaracua” (Apraiz 1929). XX. gizaldiaren bigarren erdian, Apodakako ikerketa etnografikoan: “Bocarrón de Zaracua” (Sáenz de Urturi 1982). Hala ere, *Zaragua* aldaera XX. mendeko azken hamarkadetan ere ageri da: “Zaragua, bocarrón donde se oculta el arroyo Lendia” (López de Guereñu 1989). Aunamendi Eusko Entziklopedian biak erabiltzen dira, “Bocarrón de Zaragoza” (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zaragua-bocarron-de/ar-146169/>) nahiz “Torco de Zarakua” (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ondategi/ar-110610/>). Ohargarria da Ondategiko herritarren gaurdainoko ahozko aldaera *Zarakua* dela (González Salazar 1996). Erabilera horrek zuzeneko lotura du dokumentaturiko lekukotasun zaharrenarekin: “Zaracua, 1792, labrantío de Ondátegui” (López de Guereñu 1989). Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialak *Zarakua* du toponimo lehenetsi gisa, eta *GeoEuskadin* ere ageri da. Uste izatekoa da jatorrizkoa *Zarakua* dela, eta *Zaragua* erak idatzizko erregistroan dukeela sorburua, zehazki *Diccionario Geográfico-Histórico de España*n (1802).

Espainiako Errege Akademiaren hiztegian *boquerón* da arauzko hitza: “boquete o abertura de gran tamaño”. Arabako toponimian *boquerón* zein *bocarón* daude. Berroztegiatako haitzuloak dira: “Los Bocarones” eta “Los Boquerones” (López de Guereñu 1989).

tas. Aquí recibe nuevos caudales, incorporándosele el que corriendo de n[orte] á s[ur] con alguna inclinación á e[ste] baña por o[este] los términos de Olano, dexándole á la izquierda, Zaitegui y Letona por e[ste] y á la derecha, pasa por medio de Foronda, por Antezana y Estarota [sic, Estarrona orde] á la izquierda, y poco mas delante de esta villa enfrente de Margarita desemboca en el Zadorra (Academia de la Historia 1802).

2. Ibaia izendatzeko aldaeren lekukotasunak

Jakina da ibai gutxi batzuek –nagusiek baino ez– izan ohi dutela antzinatik izen berezi bakarra beren bide osoan.

Arabakoetan horietakoa da Zadorra ibaia, lurraldeko ezagunena. Estreina aldiz ageri da Miranda de Ebroko foru-gutunean (1117)³ eta aurrerago ere, 1241ean, izen bera hartzen du Ebrorekin bat egiten duen tokian.⁴ Ibilguan gora, Argantzongo foru-gutunean aipatzen da (1191),⁵ eta, ondoren, Trebiñuko foru-gutunean (1254) ere bai: “ffasta el agua que es dicha Zadorra”.⁶ Berriz azaltzen da, 1317. urtean, Añanako gatzeta sal zitekeen lurralde-mugak zehazten diren erregalian: “aquende Ebro fasta el agua de Cadorra [sic, Çadorra orde]”.⁷ Hortik aurrerako izkribuetan ere izen hori du, grafiak grafia: 1495ean⁸ eta Argantzongo mugarri-bisita batean (1536).⁹ Gorago, Aguraindik gertu, XIV. mendearen bukaeratik aitzina dokumenta-

³ (Martínez Díez 1982: 43-44): “pro alhoç usque dum coniunguntur Çadorra et Ebro [...]. Et Çadorram uerssus sursum totam aquam” [“por alfoz incluso hasta donde confluyen el Zadorra y el Ebro [...] y, Zadorra arriba, toda el agua”].

⁴ (Ruiz de Loizaga 2016: 166): “las dos [piezas] yssen a Zadorna [sic]”.

⁵ (Martínez Díez 1982: 169-171): “Et qui fecerit molendinum in aqua de Zadorra”.

⁶ *Ibidem*, 203. or.

⁷ (López Castillo 1984: 60)

⁸ (Iñurrieta 1983: 83)

⁹ (Vergara 1977: 97-106) Zadorra erreka zenbait aldiz aipatzen da: “el dicho mojon [...] por la dha cequia e rivero asta el Rio de Zadorra”.

tzen da: “el río de Çadorra” (1488),¹⁰ “ryo que se llama Çadorra” (1493)¹¹ eta “rio que dizen Çadorra” (1519).¹² Ibaiari ez zaio beste izenik ezagutu.

Antzinatek izen bakarra duten Arabako ibai bakanetan, beste bat dugu *Ihuda*. Kapildui mendia magalean sortu, Trebiñu Konderria zeharkatu eta, Miranda de Ebrotik gertu, Zadorrara isurtzen da. Aski goiz ageri da izkribu zaharretan, XI. mendean, *Ibita* (eta *Ibida*) erarekin. Trebiñuko foru-gutunean (1254) *Ibdara* aldatuta azaltzen da: “el agua de Ibda”. Ondoren, *Ibdatik Yudara* urrats laburra dago. Bigarren aldaera erruz aurkitzen da XVII. mendearen bukaera bitarteko testuetan, *Ayuda* aldaera agertu arte. Uste izatekoa da bilakaera hori gaztelaniaren eraginez gertatu zela, garai hartan nabaritzen ari baitzen euskararen gainbehera Trebiñu Konderrian. Orduz geroztik azkar hedatu zen *Ayuda* izena, harik eta hegemoniko bihurtu arte.

Alabaina, salbuespenak dira horrelakoak. Berandu arte ez da ohikoa ibai txikiek izen bakarra izatea. Alderantziz, gehienek izen desberdinak izan dituzte beren bidean, sarrienik ibaiaren ondoko leku-izenetatik hartuak. Dio-gunaren argigarria da azken hamarkadetan *Inglares* aldaerarekin ezagutu den Arabako *Jugalez* ibaiaren kasua:

Como es frecuente en los pequeños cursos fluviales, el río [Jugalez] no ha tenido una denominación común en todo su recorrido, sino que ha recibido distintos nombres a lo largo del mismo. Eso fue cambiando, sobre todo en el siglo XIX, porque surgió la necesidad de emplear denominaciones que lo abarcaran en su conjunto, para su representación cartográfica y su mención en los grandes diccionarios geográficos. A pesar de eso, todavía se mantienen denominaciones parciales del río [...]. Hay en su curso otro término que ha dado nombre al río [...]. Se trata del topónimo que actualmente se dice Jubalez en Santa Cruz del Fierro [...]. Ese nombre de lugar, aplicado a una amplia heredad ribereña del río, es heredero de la denominación Jugalez. A partir de ese término se ha ido extendiendo el nombre a todo el curso fluvial (González de Viñaspre 2017: 231-232).

¹⁰ (Paz 2013: 254)

¹¹ (Pozuelo 2005: 204)

¹² (Paz 2013: 333)

2.1. Izen generiko hutsa, espezifikorik gabe

Sarritan ageri ohi da ibaia Gereñako kontzejuaren XVII.eko eta XVIII. mendearen lehen erdiko izkribuetan, osagai espezifikorik gabe, soil-soilik izendapen generikoa baliatuta: “Río Mayor”, “Río Caudal” edo sinpleki “Río”.

Lehenbizikoaren erakusgarri dira, besteren artean: “vn riuao en el dho Rio Mayor” (1664)¹³ nahiz “una ysla en el Rio Mayor” (1665).¹⁴ Hurrengo gizaldiaren lehen erdikoak dira etsenpluok: “quando se conpuso el rio Mayor” (1715)¹⁵ eta “deri[r]bando las yslas del rio Mayor para que megor cor[r]iese el agua” (1718).¹⁶

Izendapen generiko gisa “Río Caudal” ere aurkitzen da. Esaterako, “conponer puentes y caminos y ribazos del rio Caudal” (1735).¹⁷

Azkenik, “Río” generiko soila ere ageri da ibaiari erreferentzia egiteko: “componer ribazos en la orilla de el Rio” (1738).¹⁸

2.2. Lendia izena

2.2.1. Lekukotasun zaharrena

Agiri zaharretan idoro dugun lekukotasun goiztiarrena Gereña herrikoa da, eta XVIII. gizaldiko kopia baten bitartez iritsi zaigu. Jatorrizko izkribua 1523koa izanik ere, informazio zaharragoa dakar, bertan jasotzen baita 1385eko epai baten transkripzioa. Bi bider ageri da ibaia XIV. gizaldiko testu horretan. Bietan *Lendia* izena hartzen du: “comenzando en la fuente

¹³ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok, 9. argazkia.

¹⁴ *Ibidem*, 11. argazkia.

¹⁵ *Ibidem*, 104. argazkia.

¹⁶ *Ibidem*, 111. argazkia.

¹⁷ *Ibidem*, 151. argazkia.

¹⁸ *Ibidem*, 158. argazkia.

de Sarniendi [sic] fasta el Rio de Lendia”;¹⁹ eta “asta el agua de Lendia por do están los moxones de piedra puestos”.²⁰

2.2.2. XVII-XVIII. mendeak: Gereñako izkribuak

Aurrerago ere, XVII. mendean eta XVIII. gizaldiaren hastapenean, *Lendia* da Gereñako izkribuetan ageri den izen espezifikoa bakarria. Esaterako, 1579ko lekukotasun hau: “una pieza en termino de Lendiaburua, al rio Lendia”.²¹ Horrela ere irakurtzen da 1661-1741 bitarteko kontu-liburuan: “un madero [...] por puente en el Rio de Lendia” (1675).²²

2.2.3. XIX-XX. mendeak: *inprimatutako lanak*

XIX. gizaldiaren muga-mugan ikusi zuen argia Landazuriren Arabako Historia Zibilak (1798). Bertan, *Zalla* sarreran, *Lendia* izena aipatzen du egileak. Itxura denez, soilik Apodakako iturburuari egiten dio erreferentzia izen horrek, ez ibai osoari:

ZALLA. [...] despues de haber corrido algun pequeño terreno, se sepultan, y á la similitud del Guadiana vuelve uno de ellos á renacer en el expresado manantial del rio Zalla, llamado por los naturales Lendia.

Lan honen lehenbiziko atalean aipatu bezala, *Zalla* eta *Lendia* sarrera bikoitza ageri da *Diccionario Geográfico-Histórico de España*n (1802). Madozen *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España*n (1845-1850) ibaiak *Zalla* izen bakarria hartzen du Zadorrarainoko ibilgu osoan, salbu eta

¹⁹ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 7. dok, 16. argazkia: “Poderes, concordia y sentencia arbitraria entre los conzexos y vezinos de los lugares de Guarena y Mandoxana sobre los monttes, pasttos, terminos y señorío de Zauala y Arana, fasta Muscurruchagana e Tortula, y la Herea de Yuso, Vizcar Veá y Bori ostea y otros de el señorío de tierra, leña y aprouechamiento”.

²⁰ *Ibidem*, 17. argazkia.

²¹ APAH, 6881. f. Elena Martínez de Madinak jakinarazi dit datu hau.

²² Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok, 28. argazkia.

Apodakan. Herri horretan lurpetik birsortzen denean izen bikoitza hartzen du: “a las márgenes del riachuelo Zalla o Lendia”.²³

Urte gutxira, 1862an, Krispiña-Izarra burdinbidearen zati bat eraikitzeari buruzko memoria tekniko batean, berriz ageri da izendapen bikoitza:

El ramal de ferrocarril que proponemos [...] salva el pequeño río Zalla ó Léndia y continua entre Ullivarri-Viña y Martioda.²⁴

Ricardo Becerro de Bengoak bi izenak darabiltza 1880an izkiriatu baina 1918an argia ikusi zuen *Descripciones de Álava* izeneko liburuan: “Guereña sobre el Zalla, ó Lendía” (67. or.). Alabaina, idazlan bereko beste pasarteren batean, izen bakarra baliatzea hautatzen du:

Las arboledas del río Zalla [...] que van á juntarse con las del Zadorra en el escondido puente de Mamario (62. or.)

XX. gizaldiaren hasieran, *Geografía General del País Vasco-Navarro* obra-
ren barruan Vicente Verak Arabako probintziaz prestatu zuen liburukian
(Carreras i Candi *circa* 1915) *Zalla* izena baino ez da erabiltzen aipu gehie-
netan. Hala ere, izendapen bikoitzik ere ageri da noizbait:

Cerca de Margarita acrecenta también el Zadorra su caudal con las aguas del río Zalla ó Lendia, formado por cuatro riachuelos que nacen en varios puntos de las estribaciones de la sierra de Gorbea (26.-27. or.)

Mendearen akaburaino idoro daiteke izen-aniztasun horren lorratza, areago handiturik, Sáenz de Urturiren Apodakako azterketa etnografikoan: *Lendía* [sic, *Lendia* ordez], *Zalla* eta *Zaya* –nahasian– izenak ematen dizkio ibaiari:

Situado sobre un altozano bordeado por el río Zalla o Zaya, también llamado Lendía [...]. El río Zalla nace en el Gorbea, aquí se llama Subialde, hasta el Bocarrón de Zaracua. Desde Zaracua hasta la desembocadura en el Zadorra toma el nombre de Zalla o Zaya. En el Bocarrón de Zaracua desaparece para aparecer en el pozo de Len-

²³ *Ibidem*, 87. or.

²⁴ *Ferro-carril de Crispijana á Izarra en la provincia de Álava*, 1862, Gasteiz, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/26081>, 9. or.

día, a 500 mts. aproximadamente de Apodaca. Desde aquí hasta la desembocadura se le conoce también por Lendía” (121.-124. or.)

2.3. Zalla izena

2.3.1. *Hasierako lekukotasunak*: XVI-XVII. mendeak

Behin baino gehiagotan azaltzen da *Zalla* izena XVI. mendeko izkribuetan, ibaiari erreferentzia eginez. Lehenbiziko testigantza 1542ko auzi zibil batean idoro dugu,²⁵ Mendotzako lekuko baten ahotan: “las aguas e abenidas que byene por el ryo de Çalla”.²⁶ Horrezaz gainera, Gereñako Juan de Zaldueño artzainaren zinpeko deklarazioan, sei bider irakurtzen da “ryo de Çalla”.²⁷

Zalla izenaren hurrengo lekukotza 1546koa da. Mendotzako kontzejua-ren artxiboan gordetik dago, 1546tik 1863ra bitarteko paper-sorta batean:

Contrato entre la villa de Mendoza y el lugar de Trespuentes, en razon de la division de propiedad y comunidad de terminos, montes y pastos, desde la Sierra Braba de Badaya, hasta el rio Zalla cerca de Zadorra.²⁸

Eskribau berak idatzia da hurrengo lekukotasuna. 1560ko izkribu baten 1568ko kopian iritsi zaigu. Nabarmentzekoa da kasu honetan *Zalla* izena ez dagokiola ibaiari, baizik eta ur bazterreko lursail izenkideari: “los termynos y pastos del prado q[ue] se dize y nombra el prado de Bengo Ugaldea y Subacohasa [sic] y Laba Yturre y Zalla y Sarburua y Landazabal y Solaburueta”.²⁹

XVI. mendearen bukaerako izkribu gehiagotan ageri da izena. Kasurako, Eztatza herrian: “un molino en el rio de Çalla [...] deuaxo de la hermita de

²⁵ Valladolideko Errege Kantzelaritzaren artxiboa. Pleitos Civiles, Fernando Alonso (F), Caja 1148.0003.

²⁶ *Ibidem*, 50. argazkia.

²⁷ *Ibidem*, 99.-101. argazkiak.

²⁸ Mendotzako kontzejua-ren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok., 1. f. Eskribaua: Yñigo de Ugarte.

²⁹ Mendotzako kontzejua-ren artxiboa, 2H kutxa, 24. dok., 6 f. itzulua.

San Mames” (1589).³⁰ Eta Trespondeko artxiboan: “mas arriba de la madre del dho Rio de Çadorra, rio arriba de Çalla, a la p[ar]te de Mendoça” (1594).³¹

Hortik aurrerako lekukotasunak XVII. mendearen bigarren erdikoak dira. Beraz, ulertu behar da ibaiaren izenak jarraitutasuna izan zuela lehen mende erdian ere, gutxienez Mendotza eta Eztarroa herrietan, dokumentazioaren isilaldiaren ondoren *Zalla* forma erruz berragertzen delako. Esaterako, Eztarroan: “zerca de el rio caudal que llaman Zalla” (1658).³²

Handik hurbil, Mendotza herrian, zenbait aldiz dokumentatzen da XVIII. gizaldiaren bigarren erdian. Adibidez, Mendotzako eta Trespondeko mugarrietan: “desde este dho sitio de Requeta asta llegar al Rio Zalla, serca [sic] de la entrada del Rio Zadorra” (1682).³³ Eskribau berak idatzia da Mendotza eta Uribarri Dibiña herrien arteko mugarren bisita-agiria: “azequia que baxa desde la dha fuente de Labayturri al dho rio caudal de Zalla” (1685).³⁴ Mendotza eta Tresponde herrietako mugarren bisita-agiritik hartua da honakoa: “mojones divisorios de propiedad y comunidad entre dicha villa y lugar de Trespuentes, desde la Sierra Braba de Badaia hasta el rio Zalla” (1694).³⁵

2.3.2. XVIII. mendeko testigantzak: *ibaiaren bokaletik gora*

Honaino aipatutako lekukotasunak ibaiaren bokaletik hurbilen dauden herriei dagozkie. Aldiz, XVIII. mendearen hastapenean, ibaiaren ibilguan

³⁰ Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C19 kutxa, 249. dok., 17. f. Eskribaua: Martín Sáenz de Asteguieta.

³¹ Trespondeko kontzejuaren artxiboa, C59 kutxa, 612. dok. Eskribaua: Martín Ortíz de Uriarte.

³² Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C16 kutxa, 170. dok., 5. f. Eskribaua: Francisco Díaz de Sarralde.

³³ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok., 15. f. Eskribaua: Andrés Francisco Esquivel.

³⁴ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 24. dok., 23. f. Eskribaua: Andrés Francisco Esquivel.

³⁵ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok., 1. f. itzulua. Eskribaua: Jerónimo Díaz de Sarralde.

gora hedatzen joan zen *Zalla* izena, harik eta Gereña herrira iritsi arte. Lehenago esan bezala, XVIII. gizaldiko lehen hamarkadak arte “Río Caudal” eta “Río Mayor” erako izendapen generikoak izan ditu ibaiak Gereñan, baita *Lendia* izen berezia ere. Gereñan *Zalla* izenaren agerpenik goiztiarrena kontzejuaren kontu-liburuan aurkitu dugu, 1700. urtean: “se abrió la zequia y arroyo que empieza en el sitio que llaman el puente y paso de Azubea asta dar junto al rio caudal que llaman de Zalla”.³⁶

Gereñako kontu-liburu berean gehiagotan aipatzen da *Zalla* izena hurrengo urteetan, maiz ibaiaren ur-goraldiek eta gainezkaldiek eragindako kalteak konpontzeko lanen kariaz. Besteak beste:

Con el motiuo justo de çerrar ribazos, abrir zanjas, componer puentes y camino y que con las continuas aguas y crezidas de rio que el dho año se experimentaron en este dho lugar y otros de su cercanía, se ocupo el conzejo y vezinos de este dho lugar, muchos dias / asi en la riuera de el Rio Zalla como en otros parages a donde se hizo mucho y considerable daño (1737).³⁷

Muchos dias que los vezinos de este dho lugar se an ocupado en obras conzejiles en el penoso trabajo de componer y lebantar ribazos q[ue] las continuas crezidas abrieron en las orillas de el Rio Zalla (1739).³⁸

Ibilguaren behealdeko herrietako agiritan *Zalla* izena du ibaiak XVIII. gizaldi osoan barrena. Esaterako, Eztarroan, “pegante al rio Zalla” (1714).³⁹ Hala ere, izkribuetan *Zalla* izena ez dagokio beti ibaiari, baizik eta ibai-bazterreko lursail bati. Gaur egun ere mantentzen da izena Uribarri Dibiñan (González Salazar 1988). Testu zaharretan ere badago horren aztarrenik. Kasurako, 1742an, Mendotzako kontzejuak Eztarroakoari eraikitzen ari zi-

³⁶ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok., 67-68. f. Eskribaua: Carlos Sáenz de Asteguieta.

³⁷ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok., 156. f. Eskribaua: Matías González de Otazu.

³⁸ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok., 161. f. Eskribaua: Matías González de Otazu.

³⁹ Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C 16 kutxa, 170. dok. Eskribaua: Jerónimo Díaz de Sarralde.

ren errotaren presa eraits zezatela eskatu zionekoa. Honela jasotzen da auzi hartan emandako ahalorde batean:

En razon del modo en que pudiera edificar dha villa de Estarrona en su propio territorio y jurisdiccion molino o rueda en la rivera que descende del Rio que nace donde llaman Lendia, y pasa por los terminos de Zalla, Zubinoviarte, propios de esta dha villa de Mendoza y de los lugares de Ulivarri de Viña, Guereña y otros.⁴⁰

Goiko pasartean hiru jakingarri biltzen dira: ibaia “El Río” generiko soilaz aipatzen da, ibaiaren sorburuak *Lendia* izena du eta *Zalla* izena duen ibai-bazterreko lursailaren ondotik iragaten da.

Alabaina, izkribu berean *Zalla* izenarekin erreferentzia egiten zaio ibaiari ere:

Los vecinos de dha villa de Estarrona han abierto en su propia jurisdiccion y territorio un cauce para conducir la agua desde el referido Rio Zalla a un molino que nuevamente han fabricado en parage que nunca le ha auido hasta ahora.⁴¹

Lekukotasun gehiago daude hurrengo urteetan. Mendotzan, “desde la Sierra de Badaya hasta el rio Zalla” (1757).⁴² Eztarroan, “pegante al rio de Zalla” (1762).⁴³ Mendotza eta Uribarri Dibiña herrien arteko akordio batean: “que se yntroduzca al rio de Zalla” (1768).⁴⁴

Bestalde, XVIII. gizaldian, Zalla ibaiaren izena probintzia-administrazio-ko agirietan ere azaltzen da. Kasurako, Arabako Probintzia Artxibo Historikoan dagoen 1758ko zigor-arloko eginbide judicial honetan:

Ha auido varias queexas sobre el mal passo que se a allado y alla en el camino que de esta dha villa tira para el puente mayor de el Rio de Zalla y lugar de Vllibarri.⁴⁵

⁴⁰ APAH, 746 protokoloa, 22. f. itzulia - 23. Eskribaua: José de Luco.

⁴¹ *Ibidem*, 23. f. itzulia.

⁴² Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok. Eskribaua: Juan Antonio de Sarralde.

⁴³ Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C 16 kutxa, 170. dok. Eskribaua: Juan Antonio Sarralde.

⁴⁴ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 25. dok. 2. f. Sortzailea: auzokoak.

⁴⁵ APAH, Signatura: Justicia 26591, 1. f.

Reparar y componer en toda forma dho camino de carro por que por el no salga a sus terminos y montes la agua de dho rio de Zalla.⁴⁶

Arabako Probintzia Artxibo Historikoko 1765eko protokolo batean, María Ana de Lezanaren ondasunen inbentarioan, Gereñako lursail baten mugak zehazten dira: “por el mediodia alinda con un rribazo y con el rio Zalla y por el nortte con el camino de Zubialdea”.⁴⁷

XVIII. mendearen bigarren erdikoak dira Tomás López geografoari Tomás Fernández de Zuazo informatzaileak bidali zizkion bi gutunak. Lehenbizikoak 1766ko abuztuaren 30eko data du:

Se pasa por dos puentecitos el río Zalla, que entra en Zadorra sobre Momario [...]. Continuando cerca de media legua desde Legarda pasa un buen puente sobre el río Zalla. (Altarriba 2000: 176-177)

Bigarren gutuna urte bereko irailaren 17koa da:

Ocaranza son unos molinos dentro del monte Gorbea, [...] que muelen con el agua que allí mismo nace de unas fuentes que al i[n]vierno dan principio al río Zalla, que corre por la Hermandad de Zigoitia y al verano se suma y se cree es la misma agua que sale en Lendea [sic, *Lendia* ordez], a dos tiros de bala sobre Apodaca al norte. (Altarriba 2000: 179)

Handik lau urtera, Madrilen inprimatu zen Tomás Lópezen Arabako mapa. Bertan “Río Zalla” irakurtzen da (López 1770).

Urte horretakoa dugu Arabako diputatu nagusiak Eztarroa, Gereña eta Uribarri Dibiña herriei zuzendutako jakinarazpena, bi urteko epean ibaier-tzak konpon zitzaten agindua ematen ziena. Zenbait aldiz ageri da *Zalla* izena dokumentuan ibaiari erreferentzia eginez:

La acequia del term[in]o de Ormetea que pega al río Zalla en la jurisdicción propia de dho Guereña.⁴⁸

⁴⁶ *Ibidem*, 1. f. itzulia.

⁴⁷ APAH, 1.002 protokoloa, 17. f. itzulia. Eskribaua: Andrés de Lezana.

⁴⁸ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 3H kutxa, 35. dok., 1. f. itzulia.

Del dho puente de Vllibbarri arriba se hace notabilísimo daño a los lugares de Guereña, Vllíbarri y Estarrona por la falta del ojo en dho puente pues pierde los mejores términos que pegan al río Zalla.⁴⁹

Por lo correspondiente al río Zalla debe hacerse la misma operación de limpiarlo de broza y árboles.⁵⁰

Uste izatekoa da dokumentu berean, zenbait aldiz, ibaiertzeko *Zalla* izeneko lursailaz diharduela, ez errekaz:

Será muy útil y beneficioso al pueblo el que el río se endereze por el mismo cotiado dejando el recodo q[ue] hace a la parte de Zalla y quedando aquella parte por donde pasa actualmente el río p[ar]a el mismo lugar de Vllibbarri.⁵¹

La cequia de Capanaza que es desde el campo de Landetea asta q[ue] entra en Zalla se deve limpiar de toda la broza y maleza que tiene y quitar los árboles q[ue] existen en ella.⁵²

Landazuriren Arabako Historia Zibilean honela deskribatzen da ibaiaren ibilgua:

ZALLA. Este río tiene uno de sus manantiales cerca del pueblo de Apodaca, perteneciente a la Hermandad de Badayoz. No se dixo primer manantial, por que desde él á la montaña de Gorbea se encuentran otros en corta distancia en jurisdiccion de la Hermandad de Cigoytia, los quales despues de haber corrido algun pequeño terreno, se sepultan, y á la similitud del Guadiana vuelve uno de ellos á renacer en el expresado manantial del rio Zalla, llamado por los naturales Lendia [...].⁵³ Luego que toma su curso el rio Zalla en el manantial de Lendia sigua [sic] de norte á poniente por los pueblos de Apodaca, Foronda, y Antezana, pertenecientes a la Hermandad

⁴⁹ *Ibidem*, 3. f. itzulua.

⁵⁰ *Ibidem*, 3. f. itzulua.

⁵¹ *Ibidem*, 2. f. itzulua.

⁵² *Ibidem*, 3. f. itzulua.

⁵³ Azterlan honen 6. orrialdean adierazi bezala, badirudi hemen soilik Apodakako iturburuari egiten diola erreferentzia *Lendia* izenak, ez ibai osoari.

de Badayoz. Introdúcese despues en la de Mendoza, pasando por cerca de la villa de Estarrona, y á poca distancia de ella se une con el rio Zadorra (Landazuri 1798: 94).

2.3.3. XIX. mendea: askotariko testuetako lekukotasunak

XIX. mendea hiztegi geografiko-historikoen garaia da. Bereziki interesekoa da Historiaren Errege Akademiak (1802) plazaratu zuen lana, bi liburukitan bildu baitzuen Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako geografia historikoa. *Zalla* edo *Lendia* ibaiari dagokion sarrera azterlan honen lehen atalean jaso da, ibaiaren kokapen geografikoa zehazteko.

Hiztegi horren beste zenbait sarreratan ageri denez, Gorbeialdetik datorren errekastoa Ondategi herriaren mugapeko troka batean amildu eta lurpean desagertzen da. Horraino ez du *Zalla* izena hartzen. Aurrerago, Apodaka herrian azaleratzen da berriro ibaia, *Lendia* izeneko lekuan. Toki horretan, ibaiak izen bikoitza du: *Lendia*, sorburutik hartzen duena, eta *Zalla*, ibaiaren bokaletik gora hedatzen joandakoa:

APODACA [...]. En la ribera del **rio Zalla** ó Lendia, que baña sus términos por o[este]. (Academia de la Historia 1802: I. 81)

Hortaz, ibaiaren behealdean, Zadorrako urekin elkartzen den inguruan, *Zalla* izen bakarra du: “ESTARRONA [...] bañánla por s[ur] el rio Zadorra por o[este] el Zalla” (I. 263).

XIX. mendeko hiztegi geografiko-historikoetan erreferentziazko obra da Pascual Madozena (1845-1850). *Zalla* edo *Lendia* sarreraren testuak ageriko zorra dio 1802koari, ia hitzez hitz hartua baita.

Hiztegi horretan, Zadorrarainoko ibilgu osoan *Zalla* izena besterik ez du ibaiak, salbu eta Apodakan. Herri horretan lurpetik sortzen den urak izen bikoitza hartzen du: *Lendia* eta *Zalla*. Honela ageri da izena Zadorrako elkargunetik ibilguan gora: Eztarroan, “le bañan por Sur el río Zadorra y por Oeste el Zalla”;⁵⁴ Uribarri Dibiñan, “le atraviesa por el Este el rio

⁵⁴ (Madoz 1845-1850: 125)

Zalla”;⁵⁵ Gereñan, “le baña el río Zalla”;⁵⁶ Forondan, “le baña el río Zalla”;⁵⁷ Apodakan, “a las márgenes del riachuelo Zalla o Lendia”.⁵⁸

Tokiko eta probintziako dokumentuetan sarritan aipatzen dira ibaiaren uraldiak eragindako kalteak. Esaterako, 1817an, Arabako Batzar Nagusietako agiri honetan:

Comisionados del lugar de Ullívarri de Viña, en que exponiendo la necesidad de la reposición de un segundo arco, del puente del río Zalla, y reparos del anterior, pretenden el abono de la mitad del coste de los fondos comunes. (73-74 or.)⁵⁹

Orobat, Gereñako kontzejuaren artxiboan gordetzen da ibaiaren kariaz inguruko herriekin izandako akordioen eta auzien berri. Kasurako, 1833koa da Zalla ibaian egin beharreko lanei buruz Martín Saracibar probintziako arkitektoaren irizpena eta Eztarroa, Gereña, Mendotza eta Uribarri Dibiña herrien arteko ahozko epaiketaren ebazpena:

Comisioné en forma al arquitecto don Martín de Saracibar para que personándose en unión de los mismos comisionados en los límites y jurisdicción de los cuatro pueblos narrados por donde atraviesa el río Zalla, me propusiese medidas capaces de cortar los males que causan las aguas en tiempos de avenidas, por falta de limpieza de sus yslas y motas que inpiden su libre curso.⁶⁰

Gereña eta Uribarri Dibiña herriek Eztarroarekin lortutako akordioa jasotzen da Gereñako kontzejuaren artxiboko bi dokumentutan, lehena 1844koa eta bigarrena 1845koa:

⁵⁵ *Ibidem*, 189. or.

⁵⁶ *Ibidem*, 130. or.

⁵⁷ *Ibidem*, 126. or.

⁵⁸ *Ibidem*, 87. or.

⁵⁹ *Actas de las Juntas Generales Ordinarias y Extraordinarias del mes de mayo de 1817, celebradas en el lugar de Zurbano y ciudad de Vitoria, por esta M.N. y M.L. Provincia de Álava* <https://euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/47290>, 73-74 or.

⁶⁰ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 4H kutxa, 51. dok., 1. f.

Para impedir que sus términos labradíos se inunden de agua por ambos lados de la villa en las crecidas y avenidas del dho río Zalla.⁶¹

Que se haga la limpia y ensanche que se contemplen necesarios en el insinuado río Zalla.⁶²

Agiri teknikoetan ere azaltzen da Zalla ibaiaren izena. Horietako bat da, 1855ean, kolera-epidemiak hiria ez ezik probintzia osoa ere jo zuenean, Gasteizko zirujau titullarrak idatzi zuen memoria historiko-estatistikoa. Lehen kapituluan aipamen topografikoak biltzen ditu. Honela ari da probintziako ibaiiez: “los [ríos] de Zalla, Ayuda etc. son muy insignificantes para merecer mención particular”.⁶³

Beste memoria tekniko bat da Krispiña-Izarra burdinbidearen zati bat eraikitzeari buruzkoa, 1862an argitaratua:

El ramal de ferrocarril que proponemos [...] salva el pequeño rio Zalla ó Léndia y continua entre Ullivarri-Viña y Martioda.⁶⁴

No presentando mas accidente que la colina de Estarrona que se levanta por su derecha y cuya falda puede aprovecharse favorablemente para ir ganando altura y enlazarse con la de Ullivarri-Viña despues de pasar el pequeño rio Zalla que las separa.⁶⁵

XIX. mendearen bigarren erdian zenbait proiektu aztertu zituen Gasteizko Udalak hiria urez hornitzeko. Horietako bat izan zen 1867an Eugenio Robert-ek eta Juan González de Lopidanak beren memoria teknikoan aurkeztu zutena, Gorbeia iturria Gasteizko ur-horniduran baliatzeko:

⁶¹ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 4H kutxa, 54. dok., 2. f., 1844-12-24.

⁶² *Ibidem*, 3. f., 1845-10-28.

⁶³ *Memoria histórico-estadística de la epidemia de cólera morbo asiático, observada en la Provincia de Álava en el año 1855 redactada por la Junta Provincial de Sanidad, por el licenciado D. G. Roure, vocal supernumerario de la misma, Cirujano Titular de la Ciudad de Vitoria*, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/27582>, 10. or.

⁶⁴ *Ferrocarril de Crispiana á Izarra en la provincia de Álava*, 1862, Gasteiz, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/26081>, 9. or.

⁶⁵ *Ibidem*, 10. or.

Tomando para la Ciudad de Vitoria una quinta parte de las aguas de la fuente de Gorbea, [...] no causaria ningun perjuicio á los molinos, ni á los habitantes de los pueblos que atraviesa el rio Zalla.⁶⁶

Administrazioaren iturri dokumentaletan arakatus, honako hau irakurtzen da Arabako Batzar Nagusien 1869ko maiatzaren 5eko bilkura-agirian:

Una instancia del Ayuntamiento de Foronda en solicitud de que el camino vecinal de Ali se dirija al puente que existe en el río Zalla, jurisdicción de Ullíbarri-viña⁶⁷

Gereñako kontzejuak 1885ean ibaiertzeko laurogei makal botatzeko bai-mena eskatu zion Diputazioari, Uribarri Dibiñako abadeari zor zioten dirua ordaindu ahal izateko:

Me enterado [sic] de las choperas que existen en las orillas del río de Zalla y en juridicion y creo que no habrá inconveniente en hacer [sic] a lo que dicho pueblo solicita.⁶⁸

Kartografia militarrean ere “Río Zalla” ageri da 1870eko *Itinerario General Militar de Españan*.⁶⁹

Ricardo Becerro de Bengoak Zalla ibaia aipatzen du, 1880an idatzi arren 1918an argia ikusi zuen *Descripciones de Álava* izeneko liburuan:

Las arboledas del rio Zalla [...] que van á juntarse con las del Zadorra en el escondido puente de Mamario. (62. or.)

Guereña sobre el Zalla, ó Lendía. (67. or.)

1889an Mendotzako udal-barrutiko mugarren aktan ageri da:

⁶⁶ Memoria sobre el aprovechamiento de aguas de la fuente de Gorbea para la Ciudad de Vitoria presentada a su ilustre Ayuntamiento por D. Eugenio Robert y D. Juan González de Lopidana, 1867, Gasteiz, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/27861>, 10. or.

⁶⁷ Extracto de la primera junta general ordinaria de la M.N. y M.L. provincia de Alava celebrada en la N. y L. villa de Salvatierra el día 5 de mayo de 1869, www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/27866

⁶⁸ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 4H kutxa, 61. dok., 1885/12/07-1886/01/04.

⁶⁹ *Itinerario General Militar de España por el Cuerpo de E.M. del ejército. Capitanía General de las Provincias Vascongadas*, 1870, [Madrid]: Depósito de la Guerra.

Junto al Rio de Zalla [...] se planto un mojon de piedra [...] por la orilla del rio Zadorra hasta atravesar el rio de Zalla” [...] a la margen derecha del Rio Zalla, donde se dividen las jurisdicciones de Mendoza e Iruña.⁷⁰

Bestelako argitalpenetan ere idoro daiteke Zalla ibaiaren aipamenik XIX. mendearen bukaeran. Esaterako, Gasteizen 1893an argitara emandako merkataritza-gidaliburu batean:

Este [Zadorra] es el principal de todos; nace cerca de Salvatierra, pasa por Vitoria, Nanclares de la Oca, Puebla de Arganzón y Armiñón y se une al Ebro en frente de Ircio, incorporándosele los rios Zalla, Santa Engracia y Ayuda.⁷¹

Orduko prentsan ere ageri da izena. Adibidez, 1897ko lekukotasuna dago *El Alavés*. *Diario tradicionalista* egunkariko “Luz misteriosa” albistean. Gaue-ro Ihurre eta Lopida herrien artean airean mugitzen zen argi batek beldurtuta zuen hango jendea. Odol-koloreko globo argitsu hark distira biziak jaurtitzen omen zituen, eta, inoiz gelditu gabe, bere bideari jarraitzen zion sortzen zen lekutik Otatzako basoan galdu arte. Berriemaileak kontatzen duenez, behin errotari batek izuz ikusi zuen nola argia hurbiltzen zihoan berak gidatzen zuen gurdirantz, harik eta bere gainean kokatu zen arte. Beste behin, emakume batek presaka itxi behar izan zuen etxeko leihoa beregana zetorren argi hura barrura sar ez zedin:

Aunque se ha hecho observar á los campesinos que el fenómeno descrito pueden ser fuegos fatuos producidos por substancias orgánicas en descomposición, para lo cual parecen muy abonados los terrenos contiguos al Zadorra y al Zalla, aseguran que, siéndoles perfectamente conocidos aquellos, por haberlos visto muchas veces, la luz misteriosa es enteramente distinta, y debe reconocer diferente causa.⁷²

⁷⁰ ACTLL-1889-2010054

⁷¹ *El indispensable comercial de Álava: libro de suma utilidad para el comercio, industria, profesiones, ciencias y artes*, 1893, Gasteiz <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/26286>, 65. or.

⁷² *El Alavés. Diario tradicionalista*, 1897-03-02, 1. or.

2.3.4. XX. mendea: Zalla izenaren hegemonia ahultzea

XX. mendearen hasieratik apurka-apurka ahultzen joango da ibai-izenaren hegemonia. Hala ere, lehenbiziko hamarkadetan, *Zalla* idazkera artean zabal-zabal erabiltzen zen Araban sortutako administrazioko idazkietan eta material geografiko-kartografikoetan. Aurrerago erakutsiko denez, *Zaya* eta *Zayas* aldaerak azalduko dira gizaldi horretan, baita XX. mendearen azken hamarkadetan ere *Zaia* ustezko euskal grafia duena.

Diputazioaren 1911ko abenduaren 29ko bilkura-agirian berriro azaltzen da ibaiaren kariaz Uribarri Dibiñako Administrazio Batzarra Eztarroakoarekin auzitan hasteko baimena:

autorización para litigar con el pueblo de Estarrona por haber realizado estas obras que le perjudican en las orillas del río Zalla.⁷³

Arabako Aldundiak mendearen hasieran argitaratutako mapetan “río Zalla” ageri da. Ikus bedi, esaterako, 1917koa.⁷⁴

José María Susaeta zientzialari gasteiztarrak 1925ean “Sobre la evolución del relieve del suelo en Álava” argitaratu zuen *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkarian* (Susaeta 1925):

El Zalla es un río que desde el pueblo de Murua, hasta su desembocadura en el Zadorra verifica un recorrido de 21 ó 22 kilómetros; nace antes de Murua en las estribaciones del Gorbea, siendo muchos los afluentes que recibe en sus cinco o seis primeros kilómetros. Este río de cauce seco en verano corre desde Murua [...], y al llegar a la salida del término de Ondátegui recibe un afluente que hundiéndose mediante una cascada [...] llega al Zalla que posee allí un cauce hondo, [...]. (402. or.)

XX. gizaldiaren hogeiko hamarkadan *Instituto Geográfico y Catastral* delakoak –egungo *Instituto Geográfico Nacional*aren aurrekoak– egindako zenbait lan topografikotan aipatzen da ibaia, gehienetan *Zalla* idazkerarekin.

⁷³ ATHA-DAH-ADL-027-004

⁷⁴ <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/applet/libros/JPG//210017/210017.pdf>

Horietakoa da Mendotza eta Margarita herrien arteko mugarrien bisita-agi-
rian jasotzen dena:

Eje de las aguas corrientes del Rio Zadorra con el eje de las aguas
corrientes del Arroyo de Zalla afluente del anterior.⁷⁵

Odon Apraizena da “País Vasco-Navarro” idazlana, *Geografía Universal. Descripción Moderna del Mundo. España y Portugal* lanaren hirugarren liburu-
kian argitara eman zena: “En Cigoitia nace el Zalla, que desaparece en los
torcos o huecos subterráneos [...]” (Apraiz 1929).

1926an, Manuel Uribe-Etxebarria ingeniariak Zadorra ibaiko eta haren
ibaiadarretako uren emakida eskatu zion Estatuari. Horien artean zegoen
Zalla ibaia. Egitasmoaren helburua zen Bilboko industriarako energia ekoiz-
tea eta ur-hornidura hobetzea. Ministerioak atzera bota zuen ingeniari bil-
botarraren eskaera, 1928ko ekainaren 27ko ebazpen baten bidez, argudiatuz
urak Ebro ibaiaren arrotik Kantauri aldera eramateak zerbitzu-arroa alda-
tzea zekarrela. Uribe-Etxebarriak berriro aurkeztu zuen eskaera 1930ean,
Primo de Riveraren diktadura bukatu ondoren. Azkenik, 1934an, Bigarren
Errepublikako gobernuak ur horiek baliatzeko baimena eman zion:

Este Ministerio ha resuelto acceder a lo solicitado y otorgar a D.
Manuel de Uribe Echevarría [...] el aprovechamiento de las aguas
del río Zadorra y sus afluentes Zalla, Anguelu y Arlabán.⁷⁶

1945ean, *Altos Hornos de Vizcaya (AHV)* enpresak eskubideak erosi ziz-
kion Uribe-Etxebarria emakidadunari. Hiru urte geroago, Ministerioak
onartu zuen emakida AHVren mendeko *Salto y Aguas del Zadorra S.A.*
sozietateari eskualdatzea:

Visto el expediente relativo a un aprovechamiento de aguas de la
cabecera del río Zadorra y sus afluentes Zalla Anguelu y Arlabán,
[...]. Este Ministerio ha resuelto: Aprobar la transferencia de esta
concesión a favor de «Aguas y Saltos del Zadorra, S. A.».⁷⁷

⁷⁵ ACTLL-1927-057052

⁷⁶ *Gaceta de Madrid*, 203. zk., 1934-07-22, 758-760 or.

⁷⁷ *Boletín Oficial del Estado*, 5. zk., 1948-01-05, 91-92 or.

Bost egunen buruan, Estatuak ebatzi zuen presaz gauzatzeko zirela ustiapen hidroelektrikorako instalazioen eta bide osagarrien lanak. Berrito *Zalla* izena ageri da, Uribe-Etxebarriak abian jarritako proiektuaren hastapenean bezala: “aguas del río Zadorra y sus afluentes, en términos de Zalla, Anguelu y otros”.⁷⁸

Arabako orduko prentsan irakur daitekeenez, proiektuaren inguruabarreko albisteetan *Zalla* idazkera erabiltzen zen. Kasurako, *El Pensamiento Alavés* egunkarian: “todos los afluentes del Zadorra (Santa Engracia, Zalla, etc.)”;⁷⁹ “La reunión de los representantes de los Ayuntamientos afectados por el embalse de los ríos Bayas y Zalla”.⁸⁰

XX. mendearen azken hamarkadetan ere, *Zalla* idazkerak sendo zirauen Araban sortutako idazkietan, baina, ikusiko denez (2.5.1.), yeismoaren eraginez, gero eta nabariagoa izango da *Zaya* aldaeraren hedapena. Hala ere, nabarmentzekoa da ibaiaren ur-ertzeko herrietako hiztunek *Zalla* atxikitzen dutela. González Salazarrek honela jaso du bertakoen ahotik: “El río que hace límite con Estarona se denomina río Zalla”, eta Mendotza herrian ibaiaren izen bera duen *Zalla* lursailarena ere bildu du (González Salazar 1988).

1977an Arabako ibai eta urtegiatan arrantzan jarduteko argitara emandako gidaliburuari atxikitako mapan “Río Zalla” ageri da.⁸¹

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, *Gasteizko Udal Informazioaren Aldizkarian Zalla* ageri da: “El Bayas, como el Zalla, siguen polémicos” (1981)⁸² eta “la subvención solicitada por la Junta Administrativa de Foronda para drenado y limpieza del río Zalla” (1982).⁸³ Hurrengo hamarkadan ere badago *Zalla* erakorik *Vitoria-Gasteizko Udal Kazetan*: “Sus tres ríos principales,

⁷⁸ Boletín Oficial del Estado, 10. zk., 1948-01-10, 133. or.

⁷⁹ *El Pensamiento Alavés*, 1947-12-13, 2. or.

⁸⁰ *El Pensamiento Alavés*, 1948-12-02, 2. or.

⁸¹ *Guía de Alava: mapa y detalle de pueblos, ríos y embalses: normas para la pesca. Sociedad de Cazadores y Pescadores de Álava*, 1977, azken orria. ATHA-BH-8565

⁸² Boletín de información municipal -Udal informazioaren aldizkaria, 40. zk., urtarril-apirila, 1981.

⁸³ Boletín de información municipal -Udal informazioaren aldizkaria, 43. zk., urtarril-apirila, 1982.

el Zadorra, el Santa Engracia y el Zalla, cuentan con extensas áreas de inundación” (1993).⁸⁴ Alabaina, 2.5.2. atalean ikusten denez, bigarren udal-argitalpen horretan barra-barra erabili izan da *Zaya* aldaera.

2.4. *Zallas* izena

Ibai-izenaren itxuragabetzeetan, *Zallas* dugu lehenbizikoa, baina egiaz ibilera laburrekoa da. Behin baino ez da azaltzen idatziz, 1883an. Aldaera horrek ez du jarraitutasunik batere. Fidel Fitaren “El vascuence alavés anterior al siglo XIV” artikuluan irakurtzen da: “El Zallas y el Zadorra bañan el término occidental de Yurre” (Fita 1883). Uste izatekoa da akats horren zergatia hurbil dagoen azpiarrotik iragaten den Bayas ibaiaren izenarekiko analogian dagokeela.

2.5. *Zaya* izena

2.5.1. *Yeismoaren eragina*

Aldaera hau lehenengo biderrez idoro dugu 1917an, Gasteizko *La Libertad* egunkarian argitaratutako albiste honetan: “En Foronda se cayó hace unos días al río Zaya un hombre llamado Luciano Lauzurica, pereciendo ahogado”.⁸⁵

Hurrengo hamarkadan, Espainiako lurzatiek katastroa eratzeari buruzko mapa argitaratzeko lanen barruan, Mendotzako eta Forondako mugarriak aztertzeko operazioa egin zen, 1927ko uztailan, Alberto López geografiako lehen topografo laguntzailearen ardurapean. Informazio hau jaso zuen agirian, seigarren mugarriaz:

El punto de intersección del eje de las aguas corriente del Río Zaya con el eje de las aguas corrientes de unas acequias de sanea-

⁸⁴ *Gaceta Municipal de Vitoria. Vitoria-Gasteizko Udal Kazeta*, 21. zk., 1993-11-20, 18. or.

⁸⁵ *La Libertad*, 8907 zk., 1917-11-24, 1. or.

mientos de terreno [...]. La línea de término entre este mojón y el mojón anterior es el eje de las aguas corrientes de la acequia de saneamiento que afluye al Rfo Zaya.⁸⁶

Lan horien emaitza da 1928an *Dirección General del Instituto Geográfico* delakoak osatu zuen Forondako udal-barrutiaren mapa. Bertan *Zaya* izkiriaturik ageri da ibaia.

Hortik aurrera, etengabe zabaltzen joan zen *Zaya* idazkeraren erabilera lehenik, eta geroxeago *Zayas* pluralgiledun aldaera. Biak ala biak yeismoak eragindako itxuragabeteak dira. Aldaketa fonetiko horren ondorioz, /ʎ/ eta /j/ fonemen arteko neutralizazioa gauzatzen da. Fenomeno hori bi hotsak ez bereiztean datza, lehenbiziko ebakeraren kaltean: alegia, /ʎ/ ebaki beharrean, /j/ ahoskatzea. Idatzizko irudikapenean, <ll> digrafotik <y> grafemara aldatzea dakar berekin.

XX. gizaldiaren lehen hamarkadetan yeismoa ez zegoen hedatua Arabako hitzunen artean. Kanpoko fenomeno zen. Ordurako penintsularen hegoaldea yeista zen erabat, Madril barne XIX. menderako, eta Espainiako hiriburuan yeismoak erabateko onarpena erdietsia zuen ahozko hizkera jasoan. Horrek zabalkundearen abiadura azkartzea ekarri zuen. Hala ere, *Atlas Lingüístico de la Península Ibérica*n (ALPI)n ageri denez, joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan, “la actual Castilla y León era distinguidora (aunque se observa la entrada del cambio por el sur de Ávila); también lo eran [...] Navarra, Rioja, País Vasco y Cantabria” (Francisco 2016). Harrezkerotik, yeismoak etengabe zabaltzen eta hitzun gehiago bereganatzen jarraitu zuen, harik eta ia penintsula osora hedatu arte. Hain zuzen, Euskal Herrian mintzatutako gaztelania izan da azkenetakoa /ʎ/ fonemari eusten:

En el castellano hablado en el País Vasco la pérdida de dicho fonema es ahora ya bastante general, pero aún no ha llegado a consumarse. Es posiblemente entre bilingües de vasco y castellano entre quienes encontramos más hablantes poseedores aún de la oposición

⁸⁶ “Acta para la operación practicada para reconocer la línea de término y señalar los mojones comunes a los términos municipales de Foronda y de Mendoza”.

palatal lateral-no lateral, aunque a falta de datos fiables no lo podemos afirmar con rotundidad, tal vez sea ya mayoritaria la pronunciación igualadora entre los vascoparlantes más jóvenes de nuestras ciudades (Oñederra 2012).

Hortaz, XX. mendearen hasieran azaltzen den *Zalla* > *Zaya* bilakaeraren jatorria Arabaz kanpo bilatu behar da, bertoko hiztunak urrun baitzeuden garai hartan yeismoak hartzen zuen eragin-eremutik. Kanpoko eragina nabaria da *Dirección General del Instituto Geográfico*ko topografoak 1928an egindako mapan. Madrilen sinatu zuen berak, apirilaren 20an, eta Madrilen ere onarpena eman zion maiatzaren 14an bigarren brigadako ingeniari buruak.

Besterik da lehenengo *Zaya* lekukotasuna, Gasteizko *La Libertad* egunkariak 1917an dakarrena. Lau orrialde zituen eta astean hiru aldiz argitaratzen zen. Albisteak ez du egilearen izen-deiturarik, eta egunkariko gainerako berriak ere izenpetu gabeak dira. Hortaz, ezin jakin daiteke grafia arrotz hori albistearen idatzi zuen kazetariaren balizko yeismoaren ondorio ote den.

Nolanahi dela ere, *Zaya* idazkerak jarraibidea izan zuen kartografia militarrean, *Dirección General del Instituto Geográfico*aren ondorengo den *Instituto Geográfico Nacional*aren datuak baliatzen baititu. Horren erakusgarri, *Servicio Geográfico del Ejército*ko 1954an argitaratutako *Ali: hoja 112 (Vitoria)*, *cuarto-III* mapa, bertan aditzera ematen den gisa, “formado con trabajos del Instituto Geográfico [...] puesta al día por el Servicio Geográfico del Ejército”. Bertan *Río Zaya* izkiriaturik dago.

*Instituto Geográfico Nacional*ak (IGNk) *Zaya* idazkera erabiltzen jarraitzen du gaur egun bere material kartografikoetan.⁸⁷ Arabako Foru Aldundiaren kartografian ere sarbidea izan du aldaera horrek. Horrela ageri da, esaterako, Arabako errepedeen mapan, gaztelaniazko bertsioan zehazten den legez, “actualizado y vigente desde 2013”.⁸⁸

⁸⁷ <http://www.ign.es/iberpix2/visor/> [2021-01-15ean kontsultatua].

⁸⁸ <https://web.araba.eus/eu/errepideak/errepideen-mapak> [2021-01-15ean kontsultatua].

2.5.2. Aldaeraren hedapena prentsaren bidez

Zaya aldaerak Arabako prentsan egin du bidea idatziz hedatzeko. Ez da falta XX. mendearen erdiko agerraldirik, esaterako 1960an *Pensamiento Alavés* egunkarian argitaratutako informazio honetan: “Estos días van a reunirse cerca de Urrialdio los pueblos de Badaya y de Bayadoz, las fertiles tierras que riegan el Laña y al [sic] Zaya”.⁸⁹ Alabaina, gero eta presentzia handiagoa erdietsi du joan den gizaldiaren azken urteetan, baita XXI. mendean zehar ere. Zabalkunde horretan lagungarri gertatu bide da *Vitoria-Gasteizko Udal Kazetan Zaya* aldaera (baita *Zayas* ere) erabili izana lauogeita hamarrekko hamarkadaren bigarren erdian. Agian, aldaera hori baliatzearen zergatia ulertzeko, informazio horien iturri ofiziala zein den ezagutu beharko litzateke. Gorago esan bezala (2.3.), *Instituto Geográfico Nacionalak Zaya* darabil, eta, ikusiko dugunez (2.6.), *Confederación Hidrográfica del Ebrok Zayas*. Edonola, uste izatekoa da Gasteizko herritarrei zuzendutako ale kopuru handiko argitalpen hura lagungarri gertatu zela *Zaya* aldaera itxuragabetuaren idatzizko zabalkundearen. Hona *Vitoria-Gasteizko Udal Kazetako* zenbait agerraldi:

De 1987 a 1990 Alava sufrió el periodo más seco del siglo. Tuvieron que realizarse importantes obras como los bombeos del río Zaya. (1996-03-23, 65. zk.)

El Subialde-Zaya, que tiene su origen en los embalses del Gorbea [...]. Impacto ecológico en diferentes zonas. Zonas detectadas: Fonda (junto a la ermita). Ríos afectados: Zayas. (1997-05-10, 88. zk.)

En el entorno al río Zadorra existen citas continuadas de visión europeo [...] la especie amplía su dominio de distribución hacia zonas periféricas favorables, como pueden ser el río Zaya. (1999-04-24, 127. zk.)

Dichos terrenos [...] discurren en paralelo por la margen derecha del río Zaya. (1999-10-09, 132. zk.)

Bertako prentsan, *El Correo* egunkariak *Zaya* aldaera darabil gutxienez XXI. mendeko lehen hamarkadan. Esaterako, “los primeros desbordamien-

⁸⁹ *Pensamiento Alavés*, 1960-09-08, 7. or.

tos de los ríos Zadorra y Zaya” (2008-03-25) eta “posibles crecidas del río Zaya” (2010-11-21). Egunkari horretan *Zalla* forma soilik erabiltzen da Bizkaiko mendebaleko udalerri izenkideaz ari denean.

2.6. Zayas izena. Uren ustiapenaren emakidari lotutako aldaera

Zaya aldaera agertu eta gero iritsi da *Zayas* forma pluralgileduna, ziurrenik gaztelaniaz *Bayas* izena duen *Baia* ibai-izenarekiko analogiaz. Bi izenak aipatzen dira elkarren ondoan XX. mendearen erdian hidrografiako agiri tekniko eta ofizialetan. Kasurako, “la derivación de las aguas del Bayas y cuenca del Zayas inferior”.⁹⁰

Arabako prentsan 1948an aurkitzen dugu *Zayas* aldaera, eta uste izatekoa da albistearen iturria –eta hortaz ibai-izenarena– dagokeela urte haieran energia elektrikoa sortzea eta Bilboaldea hornitzea xede zuen proiektuaren inguruan sortutako dokumentazio tekniko eta administratiboan:

El canal de captación de estas corrientes del Zayas tiene su origen al oeste de Villodas [...] empalma con la salida del túnel de la conducción del Bayas a la cuenca del Zayas.⁹¹

Hala ere, ohartaraztekoa da aldaera hori ez ezik *Zalla* ere ageri dela urte berean egunkari horretan: “La reunión de los representantes de los Ayuntamientos afectados por el embalse de los ríos Bayas y Zalla”,⁹² baita aurreko urtean ere: “todos los afluentes del Zadorra (Santa Engracia, Zalla, etc.)”.⁹³

Behin betiko proiektua Antonio del Águila ingeniariak sinatu zuen. Berea da 1955ean argitaratutako “Proyectos de aprovechamiento de las aguas de los ríos Zadorra y Bayas” izeneko artikulua, non *Zayas* aldaera darabilen:

Con fecha 17 de julio 1934 fué otorgada por el Ministerio de Obras Públicas una concesión de aprovechamiento de las aguas del

⁹⁰ *Boletín Oficial del Estado*, 47. zk., 1955-02-16, Dirección General de Obras Hidráulicas.

⁹¹ *Pensamiento Alavés*, 1948-01-18, 3. or.

⁹² *Pensamiento Alavés*, 1948-02-12, 1. or.

⁹³ *Pensamiento Alavés*, 1947-12-13, 2. or.

río Zadorra y sus afluentes Zayas, Anguelu y Arlabán (Del Águila 1955)

Alabaina, artikulua egileak *Zayas* transkribatzen badu ere, *Zalla* forma besterik ez da ageri 1934ko uztailaren 17ko data duen eta hil bereko 22an *Gaceta de Madrid*-ek emakidaren berri ematen zuen jakinarazpenean:

Examinado el expediente promovido por D. Manuel Uribe Echevarría, en solicitud de una concesión de aguas del río Zadorra y de sus afluentes Zalla, Anguelu y Arlabán, con destino a la producción de fuerza motriz y abastecimiento a Bilbao y pueblos de su vía [...]. Unidos entre sí e incrementados con las aguas de los cauces Zalla y Arlabán [...]. El aprovechamiento de las aguas del río Zadorra y sus afluentes Zalla, Anguelu y Arlabán.⁹⁴

1945ean *Altos Hornos de Vizcaya, S. A.* enpresari eskualdatu zitzaion emakida. Ondoren, 1947an, Bilbon eratu zen *Aguas y Saltos del Zadorra, S.A.*-ri eman zitzaion, eta azken enpresa honek aurkeztu zuen Antonio del Águila ingeniariaren aipatutako proiektua. Emakidaren eskualdatzea baimentzen zuen jakinarazpena *Boletín Oficial del Estado*n argitaratu zen 1948ko urtarrilaren 5ean, *Dirección General de Obras Hidráulicas* delakoaren zuzendari nagusiak izenpetua. Testu horretan *Zalla* forma erabiltzen da:

Visto el expediente relativo a un aprovechamiento de aguas de la cabecera del río Zadorra y sus afluentes Zalla Anguelu y Arlabán, en distintos términos municipales de las provincias de Alava y Vizcaya [...] este Ministerio ha resuelto: Aprobar la transferencia de esta concesión a favor de «Aguas y Saltos del Zadorra, S. A.».⁹⁵

Handik bost egunera argia ikusi zuen Dekretuak presako egikaritzapentzat jotzen zituen emakida horri lotutako aprobetxamendu hidroelektrikoen instalazio eta bide osagarrien obrak. Testu horretan ere ez dago *Zayas* formarik, *Zalla* baizik:

Por Orden ministerial de dieciocho de diciembre del corriente año se ha rehabilitado la concesión para aprovechar aguas del río

⁹⁴ *Gaceta de Madrid*, 203. zk., 1934-07-22, 758.-760. or.

⁹⁵ *Boletín Oficial del Estado*, 5. zk., 1948-01-05, 91.-92. or.

Zadorra y sus afluentes, en términos de Zalla, Anguelu y otros, en las provincias de Alava y Vizcaya.⁹⁶

1955eko urtarrilaren 21ean aurreko emakida eraberritu eta handitu zitzaion *Aguas y Saltos del Zadorra S. A.* enpresari. Agiri horretan idoro dugu lehenengo biderrez *Zayas* aldaera, eta *Zalla* guztiz desagertzen da. *Confederación Hidrográfica del Ebro*ko zuzendari nagusiak sinatua da:

Visto el expediente incoado por «Aguas y Saltos del Zadorra, S. A.», para reforma y ampliación del aprovechamiento de aguas del río Zadorra y sus afluentes Zayas Anguelu y Arlabán [...] este Ministerio, [...] ha resuelto autorizar para la reforma y ampliación del aprovechamiento de que es concesionaria en el río Zadorra y sus afluentes Zayas, Anguelu y Arlabán, [...] mediante la derivación de las aguas del Bayas y cuenca del Zayas inferior [...]. La regulación del Bayas tendrá lugar mediante un embalse sobre este río y su transvase a la cuenca del Zayas.⁹⁷

Emakida hori berrir eraberritu eta handitu zuen Ministerioak 1957ko hastapenean. Ibaiaren beheko arroari erreferentzia egiten dio testuak, zenbait aldiz, “Zayas inferior” izendapenez. 1955ekoan bezala, *Zalla* formarik ez da ageri:

Este Ministerio ha acordado se considere modificada y ampliada la concesión otorgada a favor de Aguas y Saltos del Zadorra, S. A., por Orden ministerial de 21 de enero de 1955, [...]. Los caudales de los ríos Bayas y Zayas inferior [...]. Las aguas de los ríos Bayas y Zayas inferior se destinarán en primer lugar y en la medida precisa al regadío [...]. La devolución de las aguas de los ríos Bayas y Zayas inferior.⁹⁸

Horrenbestez, *Zayas* aldaera itxuragabetua 1955ean erabiltzen hasi zen *Boletín Oficial del Estado* agerkarian, uren ustiapenaren emakidaren inguruko idazkietan. Eta gutxienez 1948ko hasiera arte erabili izan da *Zalla* forma agerkari ofizial beretan. Beraz, aldaketa 1948-1955 tartean gauzatu zen era

⁹⁶ *Boletín Oficial del Estado*, 10. zk., 1948-01-10, 133. or.

⁹⁷ *Boletín Oficial del Estado*, 47. zk., 1955-02-16, 986.-987. or.

⁹⁸ *Boletín Oficial del Estado*, 72. zk., 1957-03-13, 1635. or.

horretako idazkietan. Handik aurrera eta gaur egun arte *Zayas* aldaera da *Confederación Hidrográfica del Ebro* erakundeak bere idazki eta argitalpen guztietan erabili duen eta erabiltzen duen bakarra. Hona, esaterako, azken urteotako etsenplu bat:

El río Zayas es el último afluente por la margen derecha del río Zadorra [...]. La longitud del cauce del río Zayas es de 28,3 km [...]. El nacimiento del río Zayas se ubica a unos 940 msnm [...]. La cuenca del río Zayas, de morfología marcadamente alargada, tiene una superficie de 88,9 km². (Confederación Hidrográfica del Ebro 2010)

Zayas formaren erabilera erraz hedatu da informazioa *Confederación Hidrográfica del Ebro*ko iturritik hartzen duten bestelako argitalpenetara, bere esparrua edozein dela ere, baita unibertsitatearekin lotutakoetan ere. Horren erakusgarri, Euskal Herriko Unibertsitatearen barruan egindako lan batean hamalau aldiz idoro dugu *Zayas* forma, behin ere ez *Zalla*:

En el caso del río Zayas coincide el hecho de ser la cuenca más alargada y la de menor razón de bifurcación (Ibisate 2004)

2.7. *Zaia* izena

2.7.1. *Gasteizko kale-izendegia*

Zaya aldaeraren *Zaia* ustezko euskal idazkera XX. mendearen hondarrean azaldu zen. Gasteizen, Ibaiondo poligonoaren urbanizazio-lanak bukatzen ari ziren 1999ko amaieran. Gasteizko Udaleko Kultura batzordeak Gobernu batzordeari proposatu zion poligono horretako kale sortu berriei Zadorrara isurtzen diren ibaien izenak ematea.

Gobernu batzordea azaroaren 19an bildu behar zuen. Bilkura aurretik, hilaren 4an, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuak Euskaltzaindiaren Onomastika batzordera jo zuen kale horien euskal ordain zuzenez kontsulta egiteko:

Arabako Ordezkaritzara jo dudalarik, Henrike Knörr jaunarekin hitz egiteko egokiera izan dut goiz honetan bertan, eta hark adierazi

dit arratsaldean biltzekoa dela hor Onomastika Batzordea, eta, presazko kontua izaki, eskaria telekopiaz bertara igortzea nuela egokien. Kontua hauxe da: Hainbat kale berriren izenak erabakitzeotan dela Gasteizko Udala (Zadorra ibaiaren bazterreko 'Ibaiondo' izeneko auzune berrirako, hain zuzen ere). Kale berri horiei ibai (edo erreka) izenak jartzea erabaki dute, eta horien euskarazko ordain zuzena nahi genuke [...]. Onomastika Batzordeak horien euskal ordainez zer iritzi duen jakin nahi genuke, albait lasterren, dagokion Sailari hala proposatzeko.

Orotara, hamazortzi kale-izen berri ageri ziren zerrenda hartan. Horieta-ko bat "Calle Río Zaya". Euskara Zerbitzuak telekopiaz bidali zuen eskaera azaroaren 4ko goizean eta arratsalde hartan aztertu eta ebatzi zuen Onomastika batzordeak, presazko bidez. Handik bost egunetara idatzizko jakinarazpen ofiziala helarazi zion Euskaltzaindiak Euskara Zerbitzuari. Eran-tzun hartan zenbait izen aldentzen ziren Gasteizko Udalaren zerrendan ageri zirenetatik, hala nola *Ugarana*, *Baia* eta *Uda* (*Uragana*, *Bayas* eta *Ayuda* izenen ordeztu). Beste izen batzuetan egokitzapen grafikoak egiten zituen Onomastika batzordeak. Esaterako, *Berron* eta *Zubialde* (*Berrón* eta *Subialde* izenen ordeztu). Zerrendako *Río Zaya* izendapenarekin aldaketa grafikoa egin zuen Onomastika batzordeak. Euskal ordain gisa *Zaia ibaia* eman zuen, *Zalla* proposatu beharrean. Ondorioz, azaroaren 19an, Gasteizko Udaleko Gobernu batzordeak kale-izenak onetsi zituen, horien artean "Calle del río Zaia / Zaia ibaiaren kalea".

2009an plazaratu zen *Gasteizko Toponimia* egitasmoaren barruan Euskaltzaindiak egindako lehenengo liburua, Gasteiz hiriko toponimiari eskainia. Bertan *Zaia* aldaerak iraun zuen: "Calle RÍO ZAIA/ ZAIA IBAIAREN kalea DOC. Calle Río Zaia (1999, ADCAV, exp. de calles), Calle Río Zaia (C2000)".⁹⁹

Urte bereko uztailan Gasteizko Udalak eskaera zuzendu zion Onomastika batzordeari hiriko kale-izendegia berrazter zezan. Abagune hura baliatu zen zenbait kale-izenetako alferreko generikoak (*río / ibaia*) kentzea propo-

⁹⁹ (Knörr; Martínez de Madina 2009)

satzeko. Kasurako, *Zaia* ibaiaren *kalea* izenaren orde, *Zaia kalea*. Elementu espezifikoa idazkeraz ez zen zuzendu.

Euskaltzaindiak 2011ko urrian zuzendu zuen akatsa, *Zalla* izena ezarri baitzuen *Euskal Herriko ibaiak* izeneko 166. arauan. Geroago, arauak liburu gisa ikusi zuen argia *Izenak* bilduman.¹⁰⁰

Gasteizko Toponimia egitasmoko laugarren liburukian ere zuzendu zen izena (Martínez de Madina 2013), eta Mendotza herriko leku-izenen zerrendan *Río Zalla* sarrera ageri da. Horren barruan hainbat lekukotasun biltzen dira, XVII. mendean hasi eta gaur egun artekoak.

2.7.2. Hedapena prentsan eta agerkari ofizialetan

Arabako prentsan, *El Correo* egunkariaren hemerrotekan hamazazpi aldiz ageri da *Zaia* izenarekin, 2009-2019 bitarteko aldirian. *Diario de Noticias de Álava* *Zaia* forma da erabiltzen den bakarra.

URA Uraren *Euskal Agentziak Zaia* aldaera baliatzen du bere idazki eta dokumentuetan. Esaterako, URAREN zuzendari nagusiaren 2016ko uztailaren 18ko Ebazpena, “Vitoria-Gasteizen, Forondako aireportua *Zaia* ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua” jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespina ematen diona.¹⁰¹

Unibertsitate-eremuko geografia-lanen batean idoro daiteke *Zaia* aldaera, baita *Zalla* forma zuzenarekin ere nahasian. Erakusgarri garbia hauxe:

El Zalla nace en la sierra de Arrato, en un terreno sometido a fuertes procesos kársticos [...]. El *Zaia* aparece y desaparece súbitamente varias veces junto a los barrancos de Arrato, cerca de Apodaka, antes de entrar en la Llanada. (Lozano; Latasa 2016)

GoogleMaps-ek *Zaia* aldaera erabiltzen du.

¹⁰⁰ (Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea 2014)

¹⁰¹ https://www.uragentzia.euskadi.eus/contenidos/informacion/foronda/es_def/adjuntos/Aprobacion/C3%B3n%20definitiva_Zaias.pdf

3. Zalla izenaren etimologiaz zenbait ohar

Zalla ibaiaren izena lehenengoz idoro dugu 1542ko izkribu batean, eta 1560an ibaiaren ur-ertzeko lursail baten izen gisa ageri da (2.3.). Uste izatekoa da, beste zenbait kasutan bezala (cfr. *Jugalez*), lursailaren izena zaharragoa datekeela ibaiarena baino. Izen honek homonimo aski ezaguna du Bizkaiko Enkarterrin. Bigarren horretaz bi sarrera jasotzen dira *Diccionario Geográfico-Histórico de España*n (1802): bata haranari dagokio; bestea haran horretako izen bereko parrokiari: “tiene una parroquia [San Miguel de Zalla] que se dice fundada por los señores de Ayala y Salcedo, y por el dueño de la casa de Zalla en el siglo XII”. Bizkaiko *Zalla* horren testigantza zaharrenak XV. mendearen hastapenekoak dira: “procuradores del concejo de Zalla” (1406)¹⁰² eta “procuradores de el concejo de Zalla” (1415).¹⁰³

Etimologiaz denaz bezainbatean, uste dut bi-biak jatorri berekoak direla: alegia, *Sallius* (Solin; Solomies 1994, 161) antroponimoa eta *-ana* atzizkia duten toponimoak dirateke. Honako bilakaera proposa daiteke euskararen arau fonetikoak aplikatuz: **(uilla) salliana* ‘Sallius delako baten etxaldea, onibarra’ > **Zaliana (ZaLiana)* > **Zaliāhā* > **Zalia* > **Zalja* > *Zalla*. Toponimo honen bertsio maskulinoa dago Bizkaian: Gernikako Zallo auzoa. Horren eboluzioa hau dateke: **(fundu) sallianu* > **Zaliano (ZaLiano)* > **Zaliāhō* > **Zaliao* > **Zalio* > **Zaljo* > *Zallo*.

Toponimo horietan ageri den *S-* > *Z-* egokitzapenak erakutsiko luke euskal hiztunek antzina moldatu zituztela latinez sortutako leku-izen horiek,¹⁰⁴ hots euskararen barnean gauzatutako eboluzioa dela. Finean, Euskal Herriko sartaldean euskararen presentzia goiztiarraren markatzaile dirateke.

¹⁰² Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Gordexola, 85-02. Goio Bañales eta Mikel Gorrotxategiri zor diedan informazioa.

¹⁰³ Zenbaiten artean, *Archivo Foral de Bizkaia Sección Municipal. Documentación Medieval (1326-1520)*, *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* 128, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 2006, Donostia, 95. or.

¹⁰⁴ (Mitxelena 1972: 5-26): “Es un hecho, ya visto por Gavel y otros, que en los préstamos más antiguos lat. S aparece representado normalmente por vasc. Z”.

Litekeena da Arabako *Zalla* izenak jatorria izatea garai erromatar berantiarreko etxalde batean, edo apika Goi Erdi Aroko okupazio-gune batean. Iturri idatzien ezak mendetako isilunea dakar garai ilun haietan. Horrela izanagatik ere, XI. mendearen hasiera baino lehen hustuta zegokeen balizko bizigunea, orduan aipatzen baitira lehen aldiz Arabako herri gehienak, Donemiliagako golde-muturra deritzon dokumentuan (1025), eta bertan ez da ageri *Zalla* izenekorik.

4. Lagun aizunak: Çalla eta Zaya leku-izenak

4.1. Çalla

Trebiñu Konderriko Ladrera eta Ozilla herrietan Çalla leku-izena dokumentatzen da 1627an: “En el p[ag]o de Çalla otra [heredad] de m[edi]a yug[ad]a”.¹⁰⁵ Ze hautsidun grafiak iradoki lezake Zalla ibaiaren izenarekiko homonimia, baina, lekukotza bakarra izateaz gainera, beste zenbait lekukotzak transkripzio okerra dela erakusten dute. Izan ere, 1627ko dokumentu berean *Calla* ere izkiriatua dago: “En el p[ag]o de Calla otra [heredad] de una yugada”.¹⁰⁶

Zalla izenaren balizko homonimoa izatea ezerezean uzten dute berandua-goko testigantzek, bigarren grafiaren aldeko baitira. Adibidez, XIX. mendean, gaztelaniazko artikulua gehituta aurkitzen da Ladreran: “otra en termino de la Calla de una fanega” (1868);¹⁰⁷ eta mugakide den Zurbitu herrian: “otra en Lacalla o la Calla” (1884).¹⁰⁸ Gaur egun arte iritsi da leku-izen hau. López de Guereñuk ez dauka bere toponimo-bilduman, bai ordea González Salazarrek. Egile horrek tokiko bizilagunen ahotan jaso

¹⁰⁵ Trebiñuko kontzejuaren artxiboa, *Vareamiento y sexta parte*, 201. f. Hartzailea: Luis de Ocio Quijada.

¹⁰⁶ Trebiñuko kontzejuaren artxiboa, *Vareamiento y sexta parte*, 198. f. Hartzailea: Luis de Ocio Quijada.

¹⁰⁷ APAH, 13674 paper-sorta, 2516. f. Notarioa: José de Zumárraga.

¹⁰⁸ Añastroko kontzejuaren artxiboa, C1 kutxa, 11. zk. Eskribaua: Casimiro Pérez.

duenez, Ladrera, Ozilla eta Zurbitu herrien mugatik alde batean zein bestean hedadura zabaleko eremua hartzen du *Calla* toponimoak. *Callarrate* leku-izena ere bildu da bertan (González Salazar 1985).

Ez dago arrasto idatzizkorik edo arkeologikorik, baina izenak garai erro-matar berantiarreko etxalde baten oihartzuna gorde lezake, edota apika Goi Erdi Aroko kokaleku batena, baldin eta jatorria *Callius* (Solin; Solomies 1994: 42) antroponimoan balu. Hau dateke euskarazko bilakaera: **(uilla) calliana* ‘Callius delakoaren etxaldea edo onibarra’ > **Caliana (CaLiana)* > **Caliāhā* > **Calia* > **Calja* > *Calla*. Hortaz, hasierako herskari belarra ahostundu gabe. (cfr. Kuartangoko Katadio; Aiarako Kexaa).

4.2. Zaya

Aztergai dugun ibaiaren beste homonimo bat lirudike López de Guereñuk *Toponimia Alavesa* liburuan dakarren Trebiñu Konderriko *Zaya* leku-izenak, “labrantío en Laño” azalpenarekin, urterik adierazi gabe (López de Guereñu, 1989). Benetan *Zalla* izenaren aldaera balitz, yeismoa luke, baina interpreta-zio hori eragozten du 1864. urtean ere *Zaya* dokumentatu izanak, Lañuko kontzejuaren artxiboko funts-ondasunen zirriborro-zerrenda batean: “Otro en Zaya de cuatro celemines”.¹⁰⁹ Izan ere, yeismo fenomenoaren agerraldi goiztiarregia litzateke inguru honetan. Gainerako datuek erabateko ziurtasunez erakusten dute *Zaya* hori sasihomonimo bat dela, eta egiaz aurreneko silaba galdua duen aldaera minoritario baten aurrean gaudela.

1864ko beste dokumentu batean dago Lañuko toponimoa, baina forma osoarekin, aferesi gabe: “otra en Alzaya de seis celemines”.¹¹⁰ Lehenago ere, 1856an, ageri da Lañuko izena familia-artxibo batean: “La mitad de la eredad de Alzaya de una yugada”.¹¹¹ Lekukotza zaharrena Lañuko kontzejuaren artxiboan gordetako 1668koa dugu, 1775eko kopia baten bitartez iritsi zaiguna: “ottras dos en ttermino de Alzaya de yugada y media a sulco de el

¹⁰⁹ Lañuko kontzejuaren artxiboa, C2 kutxa, 3-1 paper-sorta, 2. f. itzulia. Sortzailea: auzokoak.

¹¹⁰ APAH, 13326 protokoloa, 828. f. itzulia. Eskribaua: Mariano de Ugarte.

¹¹¹ Pedruzo familiaren artxiboa, C1 kutxa, 6. dok., 3. f. Kontularia: Gregorio Fernández.

rio”.¹¹² Gaur egun oraindik toponimoaren forma osoa darabilte Lañuko bi-zilagunek: “Alzaya (o el Callejón)” (González Salazar 1985).

Nabarmentzekoa da leku-izen honek *Alzaya* homonimoa duela gaur egungo toponimian, Markiz herrian (González Salazar 1986). Lehenago ere ageri da dokumentazioan izen hau, osorik, Markizko kontzejuaren artxi-boan. Esaterako, 1796an, karitate-soroen lur-neurketa batean: “otra sita en el termino de Alzaia”.¹¹³ Eta, 1734an: “otra heredad en Alzaia”.¹¹⁴ Etimologiari dagokionez, oso datekeena da, Elena Martínez de Madinak diostan bezala, osaeran *haltz* zuhaitz-izena parte izatea, horri lotua *-tza* (< *-zaha*) atzizkia, eta ondoren *-a* artikulatu-marka ‘haltzak dauden tokia’ esanahiarekin: (H)*altza(h)a* + *a* > **Altzaea* (bokal-disimilazioa tarteko) > *Alzaiia*.

Horrenbestez, ibaiaren izena *Zaya* aldaerarekin itxuragabetzea yeismoaren zuzeneko ondorioa izan da, dudarik gabe.

Ez dago baieztatzerik *Zayas* aldaeraren sorrera erraztuko ote zuen, –Baya ibaiaren izenarekiko analogiaz gain– Gaztelako herri batzuen izenekiko homofoniak. Soriako probintziaren sartaldean, *Zayas* osagaia duten bi herri daude: bata, *Zayas de Báscones*, Alcubilla de Avellaneda udalerrian, eta bestea, *Zayas de Torre*, Langa de Duero udalerrian. Hirugarren herri bat dago, atzizki txikigarria hartu duena: *Zayuelas*, Fuentearmegil udalerrian.

5. Ondorioak

Ibai nagusi gutxi batzuek (ad. *Zadorra* eta *Ihuda*) ez bezala, ohikoa da Zalla moduko ibai txiki eta ertainek antzinatik izen bat baino gehiago izatea bere ibilgu osoan. Azkenean gailentzen den izena sarrienik ibaiak zeharkatzen dituen lursailtako leku-izenen batetik hartua izaten da. Horixe bera

¹¹² Lañuko kontzejuaren artxiboa, C1 kutxa, 4. paper-sorta, 73. f. Eskribaua: Gregorio Núñez de Arce.

¹¹³ Markizko kontzejuaren artxiboa, C9 kutxa, 163. dok., 15. f. itzulia. Eskribaua: Santiago López de Mezquíá.

¹¹⁴ Markizko kontzejuaren artxiboa, C9 kutxa, 163. dok., 6. f. itzulia. Eskribaua: Juan Antonio Fernández de Quincoces.

da Zalla ibaiaren kasua, izkribu zaharretan izen hori ez baitagokio beti ibaia-ri, baizik eta Uribarri Dibiñako mugapean dagoen ibai-bazterreko lursail luze bati. Beste zenbait ibai-izenetan legez (cfr. *Jugalez*), uste izatekoa da lursailetik datorkiola izena ibaia-ri, ez alderantziz.

Dokumentazio historikoan generiko hutsez izendatuta ageri da ibaia zenbait aldiz, baina gehienetan espezifikoa barne duela azaltzen da agerietan. Espezifikorik zaharrena *Lendia* da. Bi bider idoro dugu XIV. gizaldiko epai batean, eta gaur arte dirau izenak, baina Apodakako iturburura mugatuta.

Alde handiz, *Zalla* da gehien aurkitzen den espezifikoa, XVI. mendearen lehen erditik gaur egun arte etengabe sarritan dokumentatzen baita. Lehenbiziko lekukotasunak ibaia Zadorrara isurtzen den bokalearen ondoko inguruari dagozkio. Geroago, XVIII. mendearen hastapenean, ibaia-ri ibilguan gora hedatuta, Gereña herrira iritsi zen *Zalla* izena. Ondoren, XIX. mendeko hiztegi geografiko-historikoetan erreferentziatzeko den Pascual Madozengan Zadorrarinoko ibilgu osoan *Zalla* izena besterik ez du ibaia-ri, salbu eta Apodakan.

XX. mendearen hasieran, apurka-apurka azaldu ziren *Zalla* izenaren osterantzeko aldaerak, eta ordura arteko hegemonia ahultzen joan zen. Lehenbiziko hamarkadetan, artean *Zalla* idazkera zabal-zabal erabiltzen zen, baita administrazioko idazkietan eta material geografiko-kartografikoetan ere. Alabaina, batez ere hogeiko hamarkadan *Instituto Geográfico y Catastral* delakoak egindako zenbait lan topografikoren eta maparen eraginez, *Zaya* aldaera agertu zen eta gaur egun arte dirau *Instituto Geográfico Nacional*aren ekoizpenetan. Arabako Foru Aldundiaren kartografian ere sarbidea izan du noizbait ildo horretatik. Ondoren, 1949-1955 urteen bitartean azalduko da *Zayas* pluralgiledun aldaera, Zadorra, Zalla eta beste ibai batzuetako uren ustiapenaren emakidarekin lotuta, agerkari ofizialetako idazkietan, ziurrenik *Bayas* izenaren analogiaz. Horregatik, *Confederación Hidrográfica del Ebron Zayas* forma itxuragabea erabiltzen da gaur egun ere.

Zaya nahiz *Zayas* aldaerak yeismoak eragindako itxuragabetzeak dira. XX. gizaldiaren lehen hamarkadetan yeismoa ez zegoen hedatua Arabako hitzunen artean. Kanpoko fenomenoa zen. Hortaz, XX. mendearen hasieran azaltzen den *Zalla* > *Zaya* bilakaeraren jatorria Arabaz kanpo bilatu behar da, bertoko hitzunik urrun baitzeuden garai hartan yeismoak hartzen

zuen eragin-eremutik. Nabarmentzekoa da XX. mendearen bukaeran ere ibaiaren ur-ertzeko herrietako hitzunek *Zalla* atxikitzen dutela, lauogeiko hamarkadan egindako ahozko bilketetan egiaztatzen denez.

Zaya aldaerak Arabako prentsan egin du bidea hedatzeko. Gero eta presentzia handiagoa erdietsi du aurreko gizaldiaren azken urteetan, baita XXI. mendean zehar ere. Zabalkunde horretan lagungarri gertatu bide da *Vitoria-Gasteizko Udal Kazetan Zaya* aldaera (baita *Zayas* ere) erabili izana lauogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdian.

Zaya aldaeraren *Zaia* ustezko euskal idazkera XX. mendearen hondarrean azaldu da. Lotuta ageri da Gasteizko Udalak 1999an zenbait kale berriri izena jartzeko Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari zuzendu zion eskaerarekin. Zehazki, “calle río Zaya”-ren euskal ordaina eskatuta, *Zaia* grafia eman zuten Onomastika batzordeak. Euskaltzaindiak 2011ko urrian zuzendu zuen akatsa, *Zalla* izena ezarri baitzuen *Euskal Herriko ibaiak* izeneko 166. arauan.

Alabaina, forma arautua ez da zabaldu hainbat erakunde ofizialetara, eta, *Zalla* idazkera zuzenaren ordeaz, oraindik bizi-bizirik daude aldaera itxuraga-beak. Ez da hori Eusko Jaurlaritzaren kasua. Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean *Zalla* jasota dago. Aldiz, *Instituto Geográfico Nacional*-ek *Zaya* baliatzen du. *Confederación Geográfica del Ebrok Zayas* erabiltzen du. *URA Uraren Euskal Agentziak Zaia* aldaera du bere idazki eta dokumentuetan. Azkenik, sozialki duen inpaktuagatik, adierazi behar da *GoogleMaps*-en *Zaia* aldaera ageri dela.

Honengatik guztiagatik, txosten honen ondorio nagusia da *Zaya*, *Zayas* eta *Zaia* aldaerak ez direla zuzenak, baztertzekoak direla. *Zalla* aldaera arauzkoa eta erabilera tradizionala errespetatzen duena izanik, jagon eta bultzatu beharrekoa da.

Xede horrekin, garrantzizkoa da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak *Zaya*, *Zayas* eta *Zaia* aldaerak baliatzen dituzten erakunde publikoei eta hedabideei jakinaraztea erabilera hori ez dela zuzena, Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean jasotako izen ofiziala *Zalla* dela, eta, azken finean, erabilera oker horiek zuzen ditzatela eskatzea.

Erreferentzia bibliografikoak

ACADEMIA DE LA HISTORIA (1802). *Diccionario geográfico-histórico de España*. Madril: Imprenta de la viuda de Joaquín Ibarra.

ALTARRIBA, Antonio (koord.), (2000). *Doscientos años de geografía en Álava. Del cuestionario de Tomás López a la actualidad*. Gasteiz: Caja Vital Kutxa.

APRAIZ, Odón (1929). «País Vasco-Navarro», in *Geografía Universal. Descripción Moderna del Mundo. España y Portugal*, Fernando Valls (zuz.), III. Bartzelona: Institución Gallach de Librería y Edición.

BECERRO DE BENGEOA, Ricardo (1918). *Descripciones de Álava: escrito el año de 1880 / Libro inédito de Ricardo Becerro de Bengoa: prólogo e índices de Ángel de Apraiz*. Gasteiz: Real Ateneo de Vitoria, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/24731>.

CARRERAS i CANDI, Francesc (zuz.), (circa 1915). *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Barcelona: Alberto Martín, <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/4555>.

CONFEDERACIÓN HIDROGRÁFICA DEL EBRO (2010). *Aplicación del Índice Hidrogeomorfológico IHG a la cuenca del Ebro. Subcuenca del río Zadorra*. Zaragoza: Mastergeo S. L.

DEL ÁGUILA, Antonio (1955). «Proyectos de aprovechamiento de las aguas de los ríos Zadorra y Bayas», *Boletín minero e industrial*, 1. Bilbo: Editorial Vizcaina.

EUSKALTZAINDIAREN ONOMASTIKA BATZORDEA (2014). *Euskal Herriko ibaiak, Izenak* Bilduma 4. Bilbo: Euskaltzaindia.

FITA, Fidel (1883). *Boletín de la Real Academia de la Historia*, 3. lib., IV koaderno. Madril.

FRANCISCO, Gonzalo (2016) «La pronunciación de la lateral /ʎ/ en la sierra de Francia (sur de Salamanca): datos lingüísticos y apreciaciones sociolingüísticas», *Lengua y habla* 20 (urtarrila-abendua).

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto (2017). «Acerca del nombre del río alavés Jugalez y su deformación en Inglares», *Euskera*, 62, 2. Bilbo: Euskaltzaindia.

GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1985). *Cuadernos de toponimia 1. Toponimia menor de Treviño*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

——— (1986). *Cuadernos de toponimia 2. Toponimia de La Montaña Alavesa*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

——— (1988). *Cuadernos de toponimia 5. Toponimia menor de Vitoria-Gasteiz*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

——— (1996). *Cuadernos de toponimia 7. Toponimia menor de Zuia*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

IBISATE, Angel (2004). «Análisis morfométrico de la cuenca y de la red de drenaje del río Zadorra y sus afluentes aplicado a la peligrosidad de crecidas», *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 38, <http://age.ieg.csic.es/boletin/38/17%20IBISATE%20311-329.pdf>.

IÑURRIETA, Esperanza (1983). *Cartulario Real a la Provincia de Álava (1258-1500)*, 3 *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

KNÖRR, Henrike; MARTÍNEZ DE MADINA, Elena (2009). *Toponimia de Vitoria. Ciudad, Onomasticon Vasconiae 27*. Bilbo: Euskaltzaindia.

LANDAZURI, Joaquín José (1798). *Historia Civil de la M.N. y M. L. provincia de Álava* [1976, *Obras históricas sobre la provincia de Álava*, II. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia].

LÓPEZ, Tomás (1770). *Mapa de la M.N. y M.L. Provincia de Alava Comprehende las Quadrilla de Vitoria, Salvatierra, Ayala, Guardia, Zuya, Mendoza, y sus cinquenta y tres Ermandades. Construido por las memorias de los naturales*. Madril: Tomás López e Hijos.

LÓPEZ CASTILLO, Santiago (1984). *Diplomatario de Salinas de Añana (1194-1465)*, *Fuentes documentales medievales del País Vasco*, 5. Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

LÓPEZ DE GUERENU, Gerardo (1989). *Toponimia alavesa seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*, *Onomasticon Vasconiae 5*. Bilbo: Euskaltzaindia.

LOZANO, Pedro José, LATASA, Itxaro (zuz. eta koord.), (2016). *Catálogo de Paisaje de la Llanada alavesa / Arabako Lautadako Paisaia Katalogoa*. Bilbo: UPV/EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea).

MADOZ, Pascual (1845-1850). *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España*. [1989, *Álava-Araba*. Faksimile-edizioa. Gasteiz: Arabako Biltzar Nagusiak].

MARTÍNEZ DE MADINA, Elena (2013). *Toponimia de Vitoria. Langraiz, Onomasticon Vasconiae* 30. Bilbo: Euskaltzaindia.

MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo (1982). *Fueros locales en el territorio de la provincia de Burgos*. Burgos: Caja de Ahorros Municipal de Burgos.

MITXELENA, Koldo (1972). «Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca», *Fontes Linguae Vasconum*, 10.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2012). «Sobre la deslateralización de las palatales o yeísmo», in *El castellano del País Vasco* (Bruno Camus, Sara Gómez, arg.), ASJU-ren Gehigarriak, LXX. Bilbo: UPV/EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea).

PAZ, Agurtzane (2013). *El monasterio de Barría. Historia y documentos (1232-1524)*, *Inéditos de Historia* 7. Bilbo: UPV/EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea).

POZUELO, Felipe (2005). *Documentación medieval de la Cuadrilla de Salvatierra: municipios de Alegría-Dulantzi, Barrundia, Elburgo. Burgelu e Iruraiz-Gauna, Fuentes documentales medievales del País Vasco*, 125. Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

ROBERT, Eugenio, GONZÁLEZ DE LOPIDANA, Juan (1867). *Memoria sobre el aprovechamiento de aguas de la fuente de Gorbea para la Ciudad de Vitoria presentada a su ilustre Ayuntamiento por D. Eugenio Robert y D. Juan González de Lopidana*. Gasteiz, <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/1993>.

RUIZ DE LOIZAGA, Saturnino (2016). *El libro Becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares (1168-1276)*, 2. Burgos.

SÁENZ DE URTURI, Isidro (1982). «Estudio Etnográfico de Apodaca», in *Estudios de Etnografía Alavesa. Ohitura* 1. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

SUSAETA, José María (1925). «Sobre la evolución del relieve del suelo en Alava», *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 16: 373-415.

VERGARA, Atanasio (1977). *De La Puebla a Villanueva pasando por Arganzón*. Burgos: Caja de Ahorros Municipal de Burgos.

ZENBAITEN ARTEAN (1992). *Colección Documental del Archivo Municipal de Lequeitio (1325-1474)*, *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* 37. Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.